

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

#### **Tximiniak garbitzeko 2020ko dirulaguntzetarako deialdiaren laburpena**

BDNS (identifikatzailea): 503342

Alkatearen 2020ko apirilaren 15eko Ebazpenaren laburpena, zeinaren bidez egiten baita Arratzua-Ubarrundiako eraikinetako tximiniak garbitzeko 2020ko dirulaguntzetarako deialdia, norgehiagoka prozedurari jarraitu gabe.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai ([www.infosubvenciones.es](http://www.infosubvenciones.es)).

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

Pertsona fisikoak eta juridikoak, baldin eta Arratzua-Ubarrundiako udalerrian legeztatuta dagoen eraikinen baten jabe edo gozamen-dun badira, tximinia garbitu badute eta dagokion eskaera egin badute.

#### **Bigarrena. Xedea**

Deialdiaren xedea da udalerriko eraikinetako tximiniak aldiro garbitzea, baldin eta horrelakorik izan eta elementu hori legeztatuta badute. Helburu da, halaber, Arratzua-Ubarrundiako Udalaren emakida (dagokion kostuaren zatia) prozedura arautzea bere eskumen esparruan.

Titularreko eraikin bana lagunduko da diruz urtean.

Urte birik behin baino ez da diruz lagunduko tximini beraren garbiketa.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak udalbatzaren 2020ko otsailaren 24ko bilkuran onetsi ziren eta apirilaren 8ko 41/2020 ALHAOn argitaratu ziren.

#### **Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa**

Dirulaguntza ekintza babesgarriaren aurrekontuaren ehuneko 70 izango da, 50 euro gehieneko muga izanik.

Gehieneko kopuru horien muga ez da aplikatuko baldin eta egin beharreko adjudikazioak egin ondoren ez bada agortzen aurrekontu partida. Kasu horretan, geratzen den kopurua modu proportzionalan banatuko da baldintza guztiak betetzen dituzten eskaeren artean, eta ez da gaitzik egindako gastuaren ehuneko 90.

Aitzitik, esleitutako kreditua ez bada nahikoa aurkeztu diren eskaera guztiei erantzuteko, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzioan murriztuko da eskaera guztiei erantzun ahal izateko.

#### **Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea**

Eskaerak egingo dira oinarrien eranskinean ageri den ereduari, oinarrietan jasoriko dokumentazioa aurkeztu behar da, eta aurkezteko epemuga 2020ko urriaren 31 izango da.

#### **Seigarrena. Eskaerari erantsi beharreko agiriak**

Normalizatutako dirulaguntza eskaera, behar bezala beteta, oinarrietako I. eranskineko ereduaren arabera.

Tximinia garbitu duen enpresak emandako fakturaren kopia eta hori ordaindu izanaren ziurtagiria.

Diru sarrera egin nahi den kontuaren erakundea eta IBANa, adieraziz zein den titularra baldin eta ez bada dirulaguntzaren onuraduna.

Dura, 2020ko apirilaren 16a

*Alkatea*

*M<sup>a</sup> BLANCA ANTÉPARA URIBE*